

'Sagardoak elkartzen gaitu' kanpaina

AURTEN, PLAZAKO EKITALDIAK EGITEA EZ DA ERRAZA, edukieraren kontrola eta jarraitu beharreko protokoloak direla eta. Pandemiak antolakuntzarako denbora murriztu eta finantziazioa gutxitu du. Hori dela eta, Gipuzkoako Sagardo-gileen Elkartearen laguntzaz, udazkenera begira Euskal Sagardoa sustatzeko kanpaina jarriko dugu abian. Helburu nagusiak izango dira, besteak beste, sagardo botilaren balioa azpimarratzea, sektorearen lana ezagutaraztea, sagardoarekiko interesa eta ilusioa lantzea, bai eta kontsumitzaile gazte berriak lortzea ere.

Horrez gain, ostalaritzak ere bultzada jasoko du, bezeroak establezimenduetara erakartzeko hainbat promozio egingo baititugu. Adibidez, sagardo botila kontsumitzen duen

bezero edo talde bakoitzari txartel bana emango diogu, eta adierazitako lekuan harraskatuz sariak lortu ahal izango dituzte momentuan (kamisetak, mantalak, icebag, giltzatak...). Bestalde, txartel berean emaila jartzeko eremua egongo da, eta txartela establezimenduko kutxan sartzen dutenek sari potoloagoa eskuratzeko aukera izango dute. Irailaren 5ean aurkeztuko dugu kanpaina Donostian, Donostiako Sagardo Egunaren harira, eta irailaren 26ra arte luzatuko da egitasmoa lurralde osoan barrena.

Kanpainan parte hartu nahi baduzu, idatzi abuztuaren 13a baino lehen promociones@hosteleriagipuzkoa.com helbidera, edo deitu 943 31 60 40 telefonora eta Ane Ruiz lankidearengatik galdetu.

